

## EUSKAL-ERRIKO SEMEA ETA AMA BIRJIÑA

### I.

Illuntasuna dator  
 An goitik, zerutik,  
 Illuntasunez ere  
 Lurra estalirik,  
 Mendi muturra dago  
 Oso illundurik,  
 Ez da iñon ikusten  
 Batere argirik.

Isillikan dijoa,  
 Isillik, ibaiya,<sup>1</sup>  
 Ez da kantatzen ari  
 Mendiyan artzaiya,  
 Isilduba dago bai  
 Kabian choriya,  
 Isil-isillik dago  
 Isillik, guztiya.

Anchen mendi azpian  
 Daude gizon asko,  
 Españiaren onra  
 Berak gordetzeko,

Au egiteagatik  
 Odola isurtzeko,  
 Bañan gero guztiak  
 Lorez estaltzeko.

Gizon abechek daude  
 Oso pozturikan,  
 Españiaren onra  
 Gordetzeagatikan,  
 Zergatik berak dauden  
 Fedez beterikan,  
 Au artu zutelako  
 Aitonetatikan.

Fedea izan ezkeru  
 Ez degu beldurrik,  
 Zergatikan gu gauden  
 Oso sinisturik,  
 Ama Birjiña gure  
 Amatzat arturik,  
 Ez degu beldurrikan  
 Iñongo aldetik.

## II

An nola dijoazen  
Gizonak gerrara,  
Beren odolarekin  
Lurra bustitzera,  
Bañan sort-erriyaren  
Onra gordetzera,  
Eta au lurretikan  
Gora jaikitza.

Asi dirade gerran  
Indarrez beterik,  
Etsaiyak bentzutzeko  
Gogoa arturik;  
Jainkoaren Amagan  
Denak pentsaturik,  
Errezatu diote  
Biotz-biotzetik.

Gerran asi ezker  
Alde bietatik,  
Eta gure etsaiyak  
Gizonak galdurik,  
Beren biotz guztiak  
Gorrotok beterik,  
Gureak iltzitzuzten  
Kupitu gaberik.

Abetan zan gizon bat  
Euskal-errikoa,  
Bere baserritikan  
Etorritakoa,  
Etsaiyen eskubetan  
Eroritakoa,  
Bañan fede santubaz  
Chit betetakoa.

Eskapulario bat  
Eskuban arturik,  
Asi zan errezatzen  
Oso umildurik,  
Jainkoaren Amari  
Itz abek esanik,  
Eskapularioa  
Malkoz chit beterik.

Zeruko erregiña,  
Guztien argia,  
Aditu zadazu, bai,  
Birjiña Maria;  
Ez dizut eskatuko,  
Ez, nere bizia,  
Baizik zuk gordetzeko  
Ama España.

Eta gogoraturik  
Bere sort-erriya,  
An urrutian zeukan  
Ama Euskal-erriya,  
Bere erri chikiko  
Eleiza churiya,  
Agur egin zion, bai,  
Azturik guztiya.

Agur betiko agur  
Ama Euskal-erriya,  
Agur, ni jaiyotako  
Baserrri chikiya,  
Agur, ez ikusteko  
Arnacho eztiya,  
Ezerreza da oraiñ  
Neretzat guztiya.

<p>Agur, kabi-chuloko          Choricho chikiya,          Agur, nere erriko          Eleiza churiya,          Agur, mendi azpiko          Ibaicho garbiya,          Agur, agur ta agur,          Nere sort-erriya.</p>	<p>Agur au egiñikan          Geldi zan isillik,          Arnacho maiteagan          Berak pentsaturik;          Bañan bere etsaiyak          Anchen ikusirik,          Alchatu zan lurretik          Beldur gabetanik.</p>
--	--

Eskapularioa  
 Berriro arturik,  
 Egiñ zuben otoitz bat  
 Oso biotzetik...  
 Kutun santu arisen  
 Berak muñ egiñik,  
 Bertan bere etsaiyak  
 Laga zuten illik.

BONIFAZIO ECHEGARAY-KOAK.

1893-garren urteko Abenduan.

